

AITA ANGELO JAUREGIREN "KARMEN'GO ARGIA"KO IDAZLANAK

I. Aita Angelo (1897-1978)

Aita Gabirel Jauregiren chunurteurrenean, egoki begitandu zaigu beraren anaia Jose Jauregi bera ere gogoratzea. Karmengo Anaidian aita Angelo izena hartuko zuen, nortasun handiko gizona, oso eragilea prailegintzan eta karmelgintzan; hori ez ezik, joera izugarria zuen kulturgintzan, batez ere, euskalgintzan.

Hori dela eta, berak euskaraz argitara emaniko idazlan batzuk jaso ditugu, KARMEN'GO ARGIA aldizkarian argitaraturikoak. Horrekin aditzera eman nahi dugu euskal idazle legez zuen gaitasuna. Beti ere, idazlan horiek aurkeztu orduko, labur zurrean bada ere, beraren nortasuna gogorarazi nahi dugu: beraren bizitza eta jardunaren jakingarri batzuk [iturriak direla eta, beraren anaia Gabirelen inguruan adierazitakoak berriro ekarri behar ditugu gogora... Edozelan ere, badago saio bat aitatu beharrekoa, alegia, Pedro Maria Duñabeitiak argitara emandakoa: "P. Ángel de la Santísima Trinidad, OCD (José Jauregui) (1897-1978)", Karmeldar Oinutsen Nafarroako Joakin Deunaren Probintziako Aldizkari Ofiziala (Gasteiz, 1980, 90. zk., 66-70. orr.). Idazlan horretatik jaso dira jakin-garrietarik gehienak].

a. Haurtzaroa eta ikasketak

Haren haurtzaro eta ikasketak direnaz bezanbatean, beraren anaia Gabirelen bizitzari buruz idatzita dagoena esan beharko litzateke atzera; egin-eginean ere, Angelo (Aramaioako Etxaguenen, 1897ko martxoaren 19an jaioa) Gabirel baino urte bi gazteagoa izan arren, ikasketa guztiak, berbarako, Larrean egindako latin-ikasketak (1909-1913), Larreko Karmengo lekaidegaitegian sartzeara (1913-1914), Markinan amaitu zituen giza ikasketak (1914-1916), Burgos (1916-1918), Gasteiz (1918-1919), Bilboko Begoñako Karmelo (1919-1922) eta Calahorran (1922-1923) egindako filosofia eta teologiako eliz ikasketak... elkarrekin egin zituzten. Hortaz, jo beza irakurleak aita Gabirelen gainean idatziriko saiora.

Egin nahi dugun ohar bakarra, Etxaguengo San Migel Goiaingeruaren partokako bataio-agirien liburuan azaltzen denez, ondokoa da: ... 1897ko martxoaren 19ko goizaldeko lauretan jaio zen, eta egun berean hartu zuen bataioa. Jazoera bitxi legez, eta bere sorterri Etxagueni zion maitasunaren adierazgarri legez, horretara esan zeroan xixtaka: "Aramaiio Etxaguengo" (eta ez "Etxaguen Aramaioko", Markinako aita Juanek Juleni jakinarazi dion legez).

Karrera 1923an amaitutakoan, aita Angeloren bizimoduak eta beraren anaiarenak bide ezberdinetatik jo zuten. Aita Angelo aginteko gizona zen, eta ekintza askori eragiten zion, ondorik ikusiko dugunez.

b. Kargu eta jarduerak

1923tik 1928ra Larrean egon zen (Zornotza), karmeldarrek latina eta giza zientziak irakasteko zuten ikastetxeko irakasle legez. Bost urteotan euskara, gaztelania, latina eta grekera irakatsi zituen. Izan ere, 1924an, ikastetxeak 40 orrialdeko liburu bat argitaratu zuen, argazki asko zuena (*Album del colegio de los RR.PP. Carmelitas Descalzos*, Larrea, Bizkaia. 1924. urtea); argazki horietarik batean aita Angelo ageri da beste karmeldar batzuekin, eta horiekin batera ikastetxeko 50 ume daude...



Angelo eta Migel anaiak.

1928. urtean Portugalera bidali zuten. Horretara, urte horretako udaberrian, karmeldarrak Portugalen berriz ezartzeari ekin zitzaizkion. Elvaseko Salbatzailearen parrokiari hasi ziren. 1930-1931ko ikasturtearen hasieran, Evorako Artzapezpikuak elizbarrutiko abadegaitegiko irakasle izendatu zuen, eta bertan eskolak eman zituen liturgia, gregori kantua, zuzenbide kanoniko, dogmatika, eta aszetika eta mistikaren gainean.

Irakaskuntzan jardun zuen 1936. urtera arte, eta urte horretan Euskal Herriratu zen; eta bere herrian Arexolako Santa Marinaren jaiak ospatzen ziharduelarik, uztailearen 18an, guda sortu zen... Eta bertan, bere anaia Gabirel lagun, zortzi edo hamar hilabete eman zituen abadegintzan, ze erretore batzuek Aramaio eta alboko herrietako parrokietatik ihes egin behar izan zuten.

1937an, Portugalera itzuli zen, Viana do Castelora; hala ere, geroxeago Aveirora joan zen, eta bertoko elizbarrutiko abadegaitegian irakasle legez jardun zuen; horrezaz gainera, karmeldarrek prestakuntzarako duten ikastetxean aritu zen. Ondoko gaiak irakatsi zituen: fisika, kimika, botanika, biologia eta grekera.

1940 eta 1948. urteen artean Probintziako eskuordea izan zen Portugalen. Garai horretan, Aveiroko prestakuntza-ikastetxea zabaldu zuen Aveiron (1941), eta Elvasen filosofia ikastetxea (1946). Lisboako Etxearen negoziazioak burutu zituen, bai eta Madeirako Funchalgo fundaziokoak ere.

1948an Perúra bidali zuten. Eta bertan ere Probintziako eskuordea izan zen, aldi berean karmeldarrek Liman zuten "Cercado"ko elizako erretorea zelarik. 1951n Txilera bidali zuten, Probintziako eskuorde legez ere... geroago, Txilen, Santiagoko komentuko priore gisa.

1957an Euskal Herrira itzuli zen, probintziako kapitulura. Urte horretan Eibarko komentura bidali zuten, eta bertoko erkidegoaren priorea izango da 1959an. Probintziako ondorengo kapituluan Zornotzako Larreko komentu-lekaidegaitegiko priore aukeratu zuten (1960-1963).

1963an atzera joan zen Portugalera, eta hiru urtetan jardun zuen Probintziako eskuorde legez. Geroago Txilera joango zen berriro ere (1967).

Izugarria zen haren jarduna, bai eta bera bizi izan zen azken urteetan zehar ere. Txilen egon zen azken garaian, bi jardueratan nabarmenduko zen: a) "El Carmelo y Praga" aldizkaria zuzentzen, izan ere, 1970. urtetik 1976ra bitartean, berak bakarrik zuzentzen zuen aldizkaria, eta ia osorik betetzen zuen, eta horretarako hainbat izen erabili zuen, hori ez ezik, fardelak berak egiten zituen eta bidali ere egin egiten zuen aldizkaria; eta b) Andetako ahizpa Teresa gazte txiletarraren kausa sustatzen (1900-1920). Ahizpa Teresa azken urteekin aldarectaratu dute: 1987an dohatsu bihurtu zuten, eta 1993ko martxoaren 21ean santu egin. Karmeldar gazte santu hau Txilen jendeak asko maite du; ze gaur egun, eta asteen-asteen, 20.000 edo 25.000 gazte inguru azaltzen dira Txileko santu karmeldarren elizara, beraren elizaren ardura dutenek dioskutenez.

Egin-eginean ere, aita Angelori zor zaio santu txiletar honen kausari gartsuki eta bizitasunez eragitea. Dohatsu bihurtze hori baztertuta zegoen. Berak iratzarri egin zuen. Ge-


roago eta idazlan gehiago argitaratu zuen. Geroago eta idazlan gehiago argitaratu zuen "El Carmelo y Praga"n; karmeldar gaztearen gogo-idazlanak argitaratu zituen (496 orr.) etab.

Jausi egin zen, eta buruko konmozioa hartu zuen... Horretara, 1978ko urriaren 26ko goizaldean hil zen karmeldarrek Txilen dituzten komentuetarik batean. 81 urte zituen.

c. Beraren euskalgintza

Kulturaren zuzpertzaila porrokatua zen, bai eta hedabideena ere. Lehen aitatu dugun aldizkariko laguntzailea izateaz gainera, badakigu Portugalen *Carmelo* aldizkaria sortu zuena; aldizkari hori karmeldarren elkarteek Portugalen zuten agerkaria izan zen. Idazlanak idatzi zituen Kolonbia, Txile, Mozambike, Argentina, Espainia eta Estatu Batuetako hainbat aldizkaritan.

Guri, berriz, euskal kulturarekin zituen harremanak azaltzea dagokigu. Jarraian, *Karmen' go Argian* argitaratu zituen idazlantxoak argitaratuko ditugu.



Euskaraz eta euskararen gainean idatzi zuen, euskal gaien inguruan idatzi zuen portugesez eta gaztelaniaz ere. Gure ardura euskal lanen inguruan dago eta, horretara, ondokoak aitaturko ditugu: "Euskal-iztia (Gramática vasca)" (1961); euskal olerkigintzaren gainean hitzaldi bat egin zuen; badu antzezlan portugesez bat euskaraturik; euskal aditzaren gainean (euskalki guztietako aldaeren gainean) idazlan mardula idatzi zuen; horren erakuskari, haren eskuizkribuen argazkiak dituzue.

d. Zein zen beraren nortasuna

Beraren nortasunaren nondik-norakoak aditzera emateko, Portugalen izan zuen gogaide baten lekukotasuna aldatuko dugu bertora; egin-eginean ere, aita David Díaz Alzolak, aita Angeloren gogo-taxuerari buruz eta beraren jardunaren gainean berba egineran, honetara esan zuen: "Atsegina zan, eta berba egiteko zabala; baikortasun osasun-garria zuen, eta horrek bultzatzen zuen burutu nahi izaten zituen asmoetan beti batekoa eta eragingarria izaten; adiskidetasunerako joera zuen, bake gizona zen, eta hitzarmenak egiten zituen batzuekin eta besteekin, guzti-guztiak goi maitasunak irabaz zitzen: priore izan zenetan sortu zitzaizkion kinka larri eta arazo gogorretan ereduizko sendotasuna agertzen zuen; gaitz-gaitza zen etsipenak jota harrapatzea; gaitasun izugarria zuen lanerako; lanerako joera izugarria zuen, bere osasun ona lagun zuelarik; irakaskuntza maite zuen, berak baieztatu zuenez; artxibo eta liburutegietara sarritan jotzen zuen, karmeldarren Anaidiaren iraganaren aztarnen bila; pasadizu ugari eta zirta asko kontatzen zituen beste lekaideei jostatu eragiteko..."

Aita Gabirel Jauregirengan ikusi ahal izan denez, euskaraz jakintzagai batzuen gainean aurrerengoz idaztea nabarmendu liteke; eta joera aitzindari hori ere haren anaia Angelorengan antzeman liteke beraren jardueretarik hainbatetan. Baina, bada zantzu bat beraren adierazgarria dena: baikortasuna; erlijio eta kulturaren inguruan ekintza asko sustatzen zuen, batzuetan berak heltzen zion lanari, eta ondorik beste batzuek oratzen zioten hark ekindako bideari, eta horretara gogo eta kultur emaitza ugari lortzen izan da.

I. Argitalpen honen inguruko zertzeladak

Argitaraldi honen inguruan gauza bi nabarmendu nahi ditugu:

1) Idazlanak jasotzeko, Julen Urkizak *Karmelen* 1991. urteko 3. zenbakiko 12. orrialdetik 38.era bitartean argitaraturiko «"Karmen'go Argia"ren bibliografia (1931-1936)» idazlana hartu dugu oinarritzat; hala ere, zehaztasun bat egin behar da: *Yakitunen eriotzako ikaspidea* izenburuarekin ematen dena lau idazlantxok osotzen dute, eta nork bere nortasuna du; hortaz, hona banan-banan aldatu ditugu, nor bere aitamen bereziarekin.

Aita Angeloren aditzari buruzko eskuskribuaren orrialde bat:

VERBO INTRANSITIVO :Aditz iasakorra.
 CONJUGACIÓN PERIFRÁSICA (conjugación del auxiliar):Aditz-laguntzalleen
 10ko edo erabidea.
 PRESENTE DEL INDICATIVO: Oraigo edo ordutako aldia.

		A M I : Nigana :	A T I : Zugana :	A E L : Aregana:	A N C S : Gugana:	A V O S : Zuekana:	A E L L O S Areakana :
Bizkaierazaz:	1. Suelo venir Etortzen nazi:						
	1. Naz (1)	-	nakizu	nakio	-	nakizue	nakie
	2. zara	zekidaz	-	zakioz	zakiguz	-	zakiez
	3. da	dekib	dakizu	dakio	dakigu	dakizue	dakie
	1. gara	-	gakizuz	gakioz	-	gakizuez	gakiez
	2. zara	zakidaze	-	zakioze	zakiguze	-	zakieze
	3. dira	dakidaz	dakizuz	dakioz	dakiguz	dakizuez	dakiez
	1. (nok	(-	(nakik	(nakiok	(-	-	(nakiok
	2. (non	(-	(nakin	(nakiokion	(-	-	(nakiokion
	3. (az	(akit	(-	(akio	(akigu	-	(akie
	1. (az	(akit	(-	(akio	(akigu	-	(akie
	2. (dok	(iakidak	(dakik	(iakiok	(iakiguk	-	(iakiek
	3. (don	(iakidan	(dakin	(iakion	(iakigun	-	(iakien
	1. (gozak	(-	(gakizak	(gaiakiozak	(-	-	(gaiakiekak
	2. (gozan	(-	(gakizan	(gaiakiozan	(-	-	(gaiakienan
Sibuzkeraz:	1. (dozak	(iakidazak	(dakizak	(iakiozak	(iakiguzak	-	(iakiezak
	2. (dozan	(iakidazan	(dakizan	(iakiozan	(iakiguzan	-	(iakiezan
	1. naiz	-	natzaitsu (3)	natzaio	-	natzaitzue	natzaie
	2. zera	zatzaikit (2)	-	zatzaikio	zatzaikigu	-	zatzaikie
	3. da	zait	zaitzu	zaio	zaigu	zaitzue	zaie
	1. gara	-	gatzaikitzu	gatzaikio	-	gatzaikitzue	gatzaikie
	2. zerate	zatzaikitet	-	zatzaikiote	zatzaikigute	-	zatzaikiote
	3. dira	zatzaikitak	zatzaitzu	zatzaio	zatzaigu	zatzaitzue	zatzaie
	1. (nauk(4)	(-	(natzaik	(natzaio	(-	-	(natzaiek
	2. (naun	(-	(natzaikion	(natzaioion	(-	-	(natzaiekion
	3. (aiz	(atzaik	(-	(atzaio	(atzaigu	-	(atzaie
	1. (aiz	(atzaik	(-	(atzaio	(atzaigu	-	(atzaie
	2. (dek	(zaik	(zaik	(zaio	(zaigu	-	(zaiek
	3. (den	(zaidan	(zaikion	(zaioion	(zaigun	-	(zaiken
	1. (gaituk	(-	(gatzaikik	(gatzaikiok	(-	-	(gatzaiekik
	2. (gaitun	(-	(gatzaikion	(gatzaikiokion	(-	-	(gatzaiekion
	1. (dituk	(zazkidak	(zazkik	(zazkiok (5)	(zazkiguk	-	(zazkiek
	2. (ditun	(zazkidan	(zazkion	(zazkiokion	(zazkigun	-	(zazkien

Sapuntaraz:	ZUKA:	1	nais(7)	-	nitzaitzu	nitzai	-	nitzaitzue	nitzaiote
		2	zare	zitzaizkit	-	zitzaizko	-	zitzaizkue	zitzaizkote
		3	da	zait	zaitzu	zai	zaitku	zaitzue	zaiote
		1	gare	-	gitzaizkitzu	gitzaizko	-	gitzaizkitzue	gitzaizkote
		2	zarete	zitzaizkitet	zitzaizkote	zitzaizkote	zitzaizkitet	zitzaizkote	zitzaizkote
		3	dire(6)	zaitkit	zaitkitzu	zaitko	zaitkitu	zaitkitzue	zaitkitote
		1	(neuk	(-	(natzait	(natzaiok	(-	(natzaitzue	(natzaitote
		2	(neun	(-	(natzain	(natzaiok	(-	(natzaitzue	(natzaitote
		3	(neiz	(natzait	(-	(natzaiok	(natzaitku	(natzaitzue	(natzaitote
		1	(neiz	(natzait	(-	(natzaiok	(natzaitku	(natzaitzue	(natzaitote
Xubernalaraz:	ZUKA:	2	(neiz	(natzait	(-	(natzaiok	(natzaitku	(natzaitzue	(natzaitote
		3	(neiz	(natzait	(-	(natzaiok	(natzaitku	(natzaitzue	(natzaitote
		1	(neiz	(natzait	(-	(natzaiok	(natzaitku	(natzaitzue	(natzaitote
		2	(neiz	(natzait	(-	(natzaiok	(natzaitku	(natzaitzue	(natzaitote
		3	(neiz	(natzait	(-	(natzaiok	(natzaitku	(natzaitzue	(natzaitote
		1	(neiz	(natzait	(-	(natzaiok	(natzaitku	(natzaitzue	(natzaitote
		2	(neiz	(natzait	(-	(natzaiok	(natzaitku	(natzaitzue	(natzaitote
		3	(neiz	(natzait	(-	(natzaiok	(natzaitku	(natzaitzue	(natzaitote
		1	(neiz	(natzait	(-	(natzaiok	(natzaitku	(natzaitzue	(natzaitote
		2	(neiz	(natzait	(-	(natzaiok	(natzaitku	(natzaitzue	(natzaitote
ZUKA:	ZUKA:	3	(neiz	(natzait	(-	(natzaiok	(natzaitku	(natzaitzue	(natzaitote
		1	(neiz	(natzait	(-	(natzaiok	(natzaitku	(natzaitzue	(natzaitote
		2	(neiz	(natzait	(-	(natzaiok	(natzaitku	(natzaitzue	(natzaitote
		3	(neiz	(natzait	(-	(natzaiok	(natzaitku	(natzaitzue	(natzaitote
		1	(neiz	(natzait	(-	(natzaiok	(natzaitku	(natzaitzue	(natzaitote
		2	(neiz	(natzait	(-	(natzaiok	(natzaitku	(natzaitzue	(natzaitote
		3	(neiz	(natzait	(-	(natzaiok	(natzaitku	(natzaitzue	(natzaitote
		1	(neiz	(natzait	(-	(natzaiok	(natzaitku	(natzaitzue	(natzaitote
		2	(neiz	(natzait	(-	(natzaiok	(natzaitku	(natzaitzue	(natzaitote
		3	(neiz	(natzait	(-	(natzaiok	(natzaitku	(natzaitzue	(natzaitote

2) Ortografiaren inguruan egin behar diren zertzeladak direla eta, aita Gabirelen idazlanak azaldueran ezarri ditugun irizpide berberak erabili ditugu hemen ere, nahiz eta bien artean berezitasun batzuk egon. Horrela, ydun aldaerak askozaz ugariagoak dira jdu-nak baino, beroriek ere sarritan ageri badira ere. Bokalen itxidurak ere askozaz nabarmenagoak izaten ditu aita Angelok, aita Gabirelek baino. Txistukarien arteko nahastea ere antolatu egin dugu, eta gaur egungo grafiaren arabera egokitu. Puntuazioa denaz bezan-batean, puntuazioa bakundu egin dugu, eta koma asko eta asko kendu egin ditugu, idazlanak errazago irakurri ahal izateko. Eragin fonetikoaz azaltzen duten aldaerak ez ditugu aintzat hartu (berbarako, *betik* erabiliko du *betiren* aldaera legez), eta beraien jatorrizko aldaerak aldatu ditugu hona. Edozelan ere, guk irizpide berdinak erabili ditugu bien lanak azaltzeko, zergatik-eta anaia garaikide bien lanak osotasunean eta, irizpideen aldetik, barren loturaz azaltzeagatik. Hortaz, argitaraldi honen berezitasunak zehatzago ikusi nahi dituenak jo dezala aita Gabirelen idazlanen atalera.

Anjel Lobera eta Julen Urkiza
Etxebarrian eta Markinan, 1995eko otsailean